

# Euskara, Mekong, zuluak eta ni

Marie Darrieussecq

Historia luzea, gatazkatsua, zaila eta aberatsa da euskararen eta neure buruaren artekoa. Hartan mintzo ez banaiz ere, anitz zor diot stricto sensu amaren hizkuntza ez ezik bi aldeetatik amatxiren hizkuntza dudan mintzaira honi. Idazketa eta egunoroko eleketa hizkuntza dut frantsesa; hirueleduna zen, alabaina, ene familia, euskaraz, espainieraz eta frantsesez.

Ene belaunaldian hautsi da euskararen primantza katea, arrazoi historikoak, soziologikoak eta are neurotikoak (familiarrak) izan direla medio. Frantsesaren aldetik, arrunta da kontua, neure belaunaldiko euskaldun anitzena. Amaren eta amatxiren hizkuntzarik gabe gelditu naiz deblauki. Deszifratu egiten dut euskara, nekez beti, hiztegi batez edo ama lagun. Alta bada, ikastaro trinkoa egin nuen bi urtean Parisen irakasle batekin, Ainara, ene haurren zaindaria izanen zenarekin... Bi urteko italiera ikastaro trinkoan entseatu izan banintz, italieraz mintzatuko nintzateke seguruenik... Baina euskararen eremuan ez da nonbait neure burua behar bezain kaliputsu ageri.

Bi alde bizi izan ditut betidanik, alde euskalduna eta alde frantsesa. Eta horiek areagotu baizik ez dituzte egiten mugaren bi aldeek, alde frantsesak eta alde espainiarrak. Euskaldunen kasuan, tinko atxiki behar izaten dio nork bere buruari beti, bitan zatitu beharra gelditu gabe bizi dutenen halabeharra baita haiena.

Baina aberastasuna dira halaber alde horiek. Frantses idazlea naizen aldetik, ene idazketa hizkuntza, frantsesa, neure mintzairatzat, neure baitarik sortzen den zerbaitzat, ez hartzeko xantza ukan dut, bertzeren artean hautatu hizkuntza baita, izan ere. Jostatu ahal izan naiz, beraz, hizkuntza horrekin, hari urrunetik, eta ez ironiarik gabe, behatzeko parada ukan baitut. Inoiz ere ez dut frantsesaren sakralizazioa bizi izan. Libertitu egiten naute Frantses Akademiako agureek. Dituen mugak gogoan dauzkadala maite dut frantses mintzaira. Ments ditu alderdi batzuk; adibidez, soinuak edo ehundurak adierazten dituzten eleak ez dira nahi bezainbat eta, bertze hizkuntza

batzuen aldean, pobreak dira hotsean eta ehunduran. Bertze muga bat, frantses mintzairak neutroa eta maskulinoa nahasiz adierazten du generoa (espainierak bezala), eta gramatika arauari jarraiki «hartzen du menean maskulinoak femeninoa». Halatan, zuzeneko ondorioa du izate horrek ene emakume idazle bizitzan. Ez naiz oraingoan horretaz luzatuko, baina egunoro baliatzen dut neure idazketa hizkuntzan euskarak generoaren aitzinean eskaintzen didan askatasuna.

Ongi ari banaiz, 1995ean erran zuen Garcia Marquezek, burrunba handian erran ere, «frantsesa hizkuntza hila» delakoa. Ene lehen eleberria argitaratu aitzineko egunetan izan zela uste dut, eta arrazoi hori dela medio dut menturaz oroitzen. Gaitzitu zitzaidan adierazpen hura, neure frankofonian ez ezik neure frantses izatean ere mindu ninduelako. Horra frantsesa maitarazten, frantses hizkuntzarekiko maitasunaz oroitarazten, nauen erran probokatzaile horietako bat. Xantza da frantsesez idaztea. Idazlea naizen aldetik, literatura tradizio luze eta aberats bateko segidan ikusten dut neure burua. Zabala du hedapen eremua eta haren betekoa publikoa: ez noski publiko ingelesduna, espainieraduna edo txineraduna bezain zabala, baina hizkuntza handia da *nehola* ere frantsesa.

Halatan, luzaro bizi izan nintzen «euskal etorkiko idazle frantses europar» baten gisan. Ondoren, Hasier Etxeberria lagunak, zuetako askok ongi ezagutuko duzuen euskal idazleak, maieutika bortitz xamar batera behartu ninduen «euskal idazlea» nintzela sinestarazteko. Espainieraz mintzatzen ginen orduan, Hasier ez baitzen garai hartan frantsesez aise moldatzen, ez eta ni, beti bezala, euskaraz ere. Honela erran zidan: «Eres una escritora vasca como un caracol es un caracol». Guztiz arbuiatu nuen hasieran erran hura. Ez nuen «murriztu» nahi, ghettoratzearen beldurrez.

Baina Hasierrri eskerrak berrikasi nuen dakidan euskara apurra, eta hasi nintzen *euskara mira egiten*, hau da, modu batean euskaldun sentitzen. «Euskal idazle frankofono europar» gisa ikusten dut ordudanik neure burua.

Euskal konpositore Ramon Lazkanoren hitzak aipatu nahi ditut ondoren. Testuinguru frantses baten barnean, lanen izenburuak euskaraz emanak direla ohartarazi diote:

R. L.: «Ez da borondate kontua, ebidentzia bat baizik. Kanpotik, kontuan harturik euskara Frantzian inolako estatuturik ez duen hizkuntza gutitu bat dela, aldarrikapen gisa irakurtzen da izenburu bakoitza. Zaila da, hemen Frantzian, gutiengoa dena bertzela hartzea: iduri du gutiengoa agertzea haren apologia egitea dela. Neure hizkuntza baliatzen dut, eta horra non euskara den hizkuntza hori. Nolanahi ere, euskarazko izenburuen aldeko hautuaren arrazoia ez da bertzeetarik bereizi nahia: erroak neure baitan dituen hizkuntza horretaz baliatu baizik ez naiz egin, eta elementu enkriptatua gertatu zaie euskaldun ez bertze guztiei.»

Bat egiten dut Lazkanok gutiengoa anomalia edo probokazio ez bezala hartzeko neke izugarria duen Frantzia jakobinoaz eginiko analisiarekin. Ongi jakinik, gainera, hizkuntza bakar batez mintzatzea dela planeta honetan egiaz arraroa eta *anormala* dena. Bi hizkuntza edo gehiagotan mintzo dira lurtar gehienak.

Haatik, ni, euskal herritarra izanik, hainbat hizkuntzatan hitz eginagatik ere, ez naiz neurean mintzo. *Euskaldunen* artetik kanpo nago neurez. Dolugarri zait egiaz kontradikzioa, min fisikoa da kasik. Guztiz sinesteraino uste dut, adibidez, ez dudala euskal paisaia behar bezain ongi hautematen. Euskaraz, euskarazko elez, hautemanen banu, osoki ikusiko nuke. Hiru hizkuntzatan ikusi beharko litzateke, euskaraz, espainieraz eta frantsesez, multikolorean edo teknikolorean ikusi ohi den bezala.

Baina laburregia da bizitza huts horren metafisiko batez dolutzeko. Ez dut galera horren pisua eraman nahi. Neure baitarik kanpo ezartzen entseatzen naiz orduan gehienetan. Halatan, drama nazionala neure drama bilakatzeko arbuio horretan egiten dut, hain zuzen ere, neure askatasunarekin topo. Ene bidaien laguntzaz gorpuztu den askatasuna. Euskaldun izateak halako etxekotasunaz ikusarazten dizkizu herri ttipiak, edo lurralde jakinik gabeko herriak, hala nola Nigeriako igboak, kurduak, ordoki zabaletako indiarak, edota Hego Afrikako zuluak... Kidetasun mina sentitzen dut lurralderik gabeko herrien alderat, bai segurik bertze nazioei baliatzen ahal duten lurralde bakarra beren mintzaira eta beren kultura dela azaldu behar dutenen kasuan.

Badakizue zertaz ari naizen: bidaian direlarik, denbora luze eman behar izaten dute euskaldunek Euskal Herria non dagoen azaltzen. Ezin dituztelako mapa batean dagozkien muga-marrak erakutsi. Orain duela zenbait urte gertatu nintzen Gineako Itsasoaren barneko zolan yoruba bati hemengoa, Bizkaiko Itsasoaren barneko zolakoa, naizela azaltzen. Ene *// faut beaucoup aimer les hommes* eleberrirako inspirazio bideetako bat urratu zuen gertakari hark.

Mundu ideal batean ez da gehiago marrarik ez mugarik izanen. Arte horretan, deus ere ez nuke Euskal Herri independente, demokratiko, ez biolento, laiko eta feministaren<sup>1</sup> kontra... Baina halako herstura menturaz oso frantsesa bizi dut nazionalismoen aitzinean. Frantzian, faxismoarekin lotzen da eskierki nazionalismoa, Front National delakoagatik. Nazionalismoaren ideia bera bahitu du FNk. Modu zabalagoan, mundu guztia frantsesa dela imajinatzen dute «chez français» frantses petoek. Parisen euskaldun ageri dena, irrigarri hartua da kasu hoberenean, edo terroristatzat gaiztoenean. Areago, Bataclan eta Charlie Hebdokoen ondoan, nehor ere beldurtuko ez duten terrorista ohi edo *has been* horietakotzat hartuko dute bigarren kasu horretan.

Itsutuki maite dut Paris, azken ia hogeita hamar urte honetan bizi izan naizen hiria. Baina Eskal Herrira etortzen naizelarik, bake handia jabetzen da nitaz. Ene kasuan, luzaz izan da lurralde hau gatazka herria, familian eta politikan. Baina ene bertze etxean, Parisen eta Frantzian, gertatu diren atentatuen ondotik, etxeko gozotasun berezia kausitu dut berriz ere Euskal Herrian. Ez diot etxe hau guztiz baketurik dagoenik, bai ordea sentimendu berri bat gorpuztu dela ene baitan: lekuz aldatu da bakea.

Jendearen galde bati ihardesteko: nehoiz ez dut frantsesez baizik idatzi, egoera guztiz berezi batean izan ezik, Charlie Hebdoren aurkako atentatuaren ondoren hain zuzen ere. 2015. urte osoan gatazka bizian entseatu nintzen, ingelesez, prentsa anglo-saxoniarrean, Interneten eta unibertsitate anglo-

---

<sup>1</sup> Puntu honi buruz: harriduraz ikusi nuen, hizkuntza gutituen gaineko bi mintzaldi hauetan, bertze hamar gizonekin batean emakume parte hartzaile bakarra nintzela. Gogaiturik eta atsekabeturik, parekidetasuna errespetatu alde eginiko ahaleginen, eta jasaniko porrotaren, berri eman zidaten antolatzaileek. Sinetsi nien, eta urrikaltsu agertu, neure gutiengotik.

saxoniarretan (amerikanoetan nagusiki), frantsesez ez jakinagatik beren burua egia ez direnak aireratzeko baimenaren jabe ikusi zuten hainbati eta hainbati Charlie Hebdo zertan zen azaltzen. Agerkari hori arrazista dela eta merezi duena baizik bildu ez zuela argudiatzen zuten bereziki. Akiturik bukatu nuen pedagogia ahalegin haren ondoan, ingelesa menderatzen dudana hizkuntza bada ere. Ez baitzen literatura, baizik eta atentatu ondoko premia. Suhiltzaile lana zen, larrialdiak beharturiko lana nahi bada, batere ez baita ariketa jostakina umorea eta marrazkiak azaldu beharra. Ene bizitzan lehenbiziko aldiz dudatu nuen dena itzuli izan ote litekeen eta, Charlie Hebdoren kasuan, hil ala biziko auzia zen hitzez hitz.

\*

Idatziz ematen ari natzaio mintzaldi honi segida, Donostiako Aquariumean eman eta gero. Euskal Herrian segitzen dut betiere, Iparraldean. Pentoka berde baten aitzinean ari naiz idazten, zirtaka ari da goizeko horma ekiaren pean eztiki urtzen.

Jatorri errumaniarreko frantses batek, Isidore Isouk, eraman zuen teoriaren esparrura hizkuntzen poesia komunitate handia izan litekeena. Nazioarteko Letrista sortu zuen berrogeita hamarreko urteetan: «Unibertsaltasuna obratuz, nazioartekotasun bera sortuko dugu hizkuntza guztiendako, haien arteko bakoitzaren garrantzia kontuan hartu gabe. Berdinak izanen dira nazio guztien irabaziak eta galerak, poesia ororen amets zaharra gauzatuko dugu gisa horretan. Non-nahi izan dadila poesia transmitigarria, gaindi ditzala muga guztiak. Poesia letrista, nazioarteko lehena egiaz. »

Itzulpen akats baten ondorioa izan zen Nazioarteko Letrista horren inguruko ideia, eleari baino letrari eta dagokion hotsari datzekiena. Keyserlingen perpaus bat, «le poète dilate les vocables», oker itzulia eman zen errumanieraz, «le poète dilate les voyelles», eta g aldatu zuen perpaus hark Isouren bizitza.

Libertigarria da, ene ustez, itzulpenean eginiko oker bat hizkuntzen arteko transmisio unibertsalaren utopiarako bidea ireki izana. Alabaina, halako erdara mota da betiere idazketa

literarioa, edo idazketa poetikoa, bat baitira ene iritziz biak. Areago, topos bilakatua zaigu gaugerero. Neure *Rapport de police*<sup>2</sup> entseguan, jostatzeko parada ukan nuen horren jori ageri zaigun leku komun horretan barrena noizbait abiatuak ziren idazleen erranak bildurik:

«*Erdara* molde batean idatziak dira liburu ederrak» (Proust). «Hizkuntza ezezagun batean mintzo da poeta, norberak, bai eta poetak berak ere, grekotzat edo kaldeeratzat hartua duen mintzaira batean hain zuzen» (Ossip Mandelstam). «Estiloa [...] nor bere hizkuntzan arrotza denaren idurikoa izatea da» (Gilles Deleuze). «Moderno erraten diet, hizkuntza oro erdara gisa bizi dutelarik, bertze hizkuntza baten xerkan entseatu direnei [...]» (Christian Prigent). «Hizkuntzaren barneko hizkuntza da estiloa, eta ez dago hartaz guziz jabetuko den eta, are gutiago, hura menean hartuko duen, idazlerik [...]» (Dominique Fourcade). «Idazlea da hizkuntza arazo bilakatzen duena.» (Roland Barthes). «Idazlan baliotsu oro dira idatziak diren hizkuntzaren aurkako matxinadak» (Danilo Kiš)...

Hots: literatura, «egiazko» literatura, itzultzea, erdara mota bat itzultzea da berez. Marguerite Durasek, adibidez, ez du zuzen-zuzen frantsesetik idatzi: etengabe asmatu du frantses molde bat frantsesaren barnean, hizkuntzaren barnean bere berezko hizkuntza urratuz. «Sena Mekong da» idatzi zuelarik, ibai bakar batek ikusi dituen bertze ibai guztiak oroitarazi dizkiola adierazi nahi izanen zukeen menturaz. Zer, bertzela? Zer *erran nahi ote zuen* Marguerite Durasek? Izan ere, adi irakurleok, «Sena Mekong da» idaztea ez da «Sena Mekongen idurikoa da» idaztea. Ez eta «Sena Mekong bezalakoa da» ere. Sena ez baita Mekongen idurikoa. Aparentziarik ere ez! Ez da Mekong bezalakoa. Baina Mekong da, zenbaitetan.

Hizkuntza askotara itzul daiteke Duras. Baina ezin da frantsesera bihurtu. Ezin da normalizatu, frantses «normalera» murriztu. Ezin dira «idurikoa» eta «bezalakoa» erantsi. Gogo paisaia eta munduak hedatzen ditu Durasen hizkuntzaren afirmazio indarrak. Literaturak alegia. Dagokion lekuan da hitz bakoitza. Hizkuntza bat da, hizkuntzaren barnean.

Bada egia bat afirmazio poetikoan, fisika kuantikoan ere baden

---

2 POL, 2010.

bezala: metodoa, behaketa eta gailu tekniko ongi landuak bezain zehatzak guztiz kontuan hartzen dituen egia. Ikerketa lan molde bera bideratzen dute fisikariak, bere partikula azeleragailuaz, eta idazleak, bere erran poetikoaz. Hizkuntzak gainditzten ditu egia honek. Literaturatik harat joan eta Isidore Isouk amestu zuen nazioarteko hura federatzen du.

\*

Perpau baten ibileraren berri eman nahiko nuke orain, bukatu aitzin. Elikatu nauen perpaua. Honela dio: «ikusmirarik gabeko jendea baizik ez da errealitatean barrena itzuri joaten».

Egiazko xoka eragin zidan hein batean paradoxazkoa ere baden baieztapen honek, lehen aldikotz irakurri nuelarik. Ene bizitzaz eta ene idazkeraz anitz zioela iduri izan zitzaidan.

Bukaeratik abiaturik nahi nuke perpau honen ibilera kontatu, batere ez baitakit bidaia honetan logika kronologikorik ba ote denentz. Izatekotz, elkartzean, ondokotasunean, espazio hurbilean, oinarritu logika genuke. Ametsen logika menturaz.

Goethe Institutuan nintzen, Parisen, 2014ko urtarrilean, Arno Schmidt, mundu bat eta hizkuntza bat asmatu zituen idazle alemaniarrari buruz mintzatzeko. Mintzaldiaren bukaeran, hitza galde egin du gizon batek, entzuleen artetik. Nitaz jabetu den perpau baten aipua egin du. Hona hemen: «Imajinaziorik gabeko jendea baizik ez da errealitatean aterpetzen».

Pilpiraka hasi zait bihotza, halako *unheimlich* sentimendua, aitortza eta harridura nahasian, eraginez. Ezagutzen nuen bertze perpau haren eite bertsukoa izanagatik ere, ez da berbera, itzulpen hein batean desberdin batetik sortua balitz bezala.

Perpaua non ikasi zuen galdetu nion gizonari. *Soir Bordé d'Or*, Arno Schmidten liburu «kultuan», ageri dela ihardetsi zidan. A priori elkarrekin zer ikusirik ez badute ere, ene geografian zedarri garrantzitsuak diren bi munduren arteko kolusioa sentitu dut neure baitan: gerra bukatu ondoko Alemania eta

apartheidaren ondoko Hego Afrika. Kwazulu-Nataleko mendi biribilak azaldu zaizkit. Zulu en lurraldea ikusi dut, Hego Afrikan. Neure zenbait eleberri inspiratu duen bizitza zati baten aitzinean gertatu naiz.

Santu Mofokeng, argazkilari hegoafrikar handiaren katalogo batean irakurri nuen, 2011n, perpaus horren lehen bertsioa. *Chasing Shadows* zen katalogo haren izenburua, frantsesez «Chasseur d'ombres»<sup>3</sup> bezala emana. Ikusezina atzematen entseatu den argazkilariaren artea ekarri zuen Mokofengek gogora katalogo hartan, bai eta zulu eta sotho hizkuntzetatik abiatu itzulpenean kausitu arazoak ere<sup>4</sup>. Eta perpaus hau aipatu zuen: «ikusmirarik gabeko jendea baizik ez da errealitatean barrena itzuri joaten».

Hain hunkitu ninduen 2011n perpaus hark non Mokofengekin harremanetan jarri bainintzen, une hartan idazten ari nintzen eleberrian, *Il faut beaucoup aimer les hommes*, baliatu ahal izateko baimena galde egiteko. Dotoretasunez ihardetsi zidan, egin ere, perpausa berea ez zela erranez: atsotitz horietakoa, zuhurtzia unibertsalaren emaitza bat, zen haren iduriko. Nolanahi ere den, idatzi zidan, ardura hartzen zuen neskalagunak perpaus hura ahotan.

Ez nintzen ene jakin-minean petralago jokatzera ausartu eta hartakoan bukatu zen gaiaren inguruko e-posta trukea. Eta neskalaguna, bera bezala, sotho edo zulu hizkuntzan mintzatuko zela egiten nuen neure artean. Xarma ezin misteriotsuagoa, xamanikoa erranen nuke, hartzen zuen perpausak ene belarrietan. Eta halako kutun gisakoa bihurtu zitzaidan.

---

3 Santu Mofokeng, *Chasing Shadows*, Prestel Verlag, 2011.

4 Hona hemen zer dioen bere obraren izenburuaren itzulpenaz, «itzal» hitzari dagokionez: « "Shadow" does not carry the same image or meaning as *seriti* or *is'thunzi*. The word in Sotho and Zulu is difficult to pin down to any single meaning. In everyday use *seriti* or *is'thunzi* can mean anything from aura, presence, dignity, confidence, power, spirit, essence, status and or wellbeing. The words in the vernacular also imply the experience of being loved or feared. One's *seriti* / *is'thunzi* can be positive or negative and can exert a powerful influence. Having a good or bad *seriti* / *is'thunzi* depends on the caprice of enemies, witches, relatives both dead and living, friends or associations, and on circumstance or time. Having and defending one's own *seriti* / *is'thunzi* from evil forces or attacking the *seriti* / *is'thunzi* of one's perceived enemies preoccupies and torments many African people. (...) And while I feel reluctant to partake in this gossamer world, I can identify with it. It does not strike me as 'peculiar'. Yet, I still try to avoid being trapped in its hypnotic embrace (...). Perhaps, I was looking for something that refuses to be photographed. I was only chasing shadows, perhaps. »



Alabaina, perpausa Goethe Institutuan munduko bertze aldetik gibelera etorri zitzaidalarik, zuluena erran zahar bat Arno Schmidten liburu batean nola demontre kausi ote litekeen galdetzen hasi nintzaion neure buruari.

Goethe Institututik itzuli orduko jarri nintzen Santu Mokofengekin harremanetan. Neskalagun ospetsua... alemaniarra zela ihardetsi zidan. Poeta anarkista aleman batzuen aldizkari baten aitzinaldeko azalean kausitu bide zuen perpausa. Hona hemen haren jatorrizko bertsoa: «*Nur die Phantasielosen flüchten in die Realität*».

Arno Schmidten *Soir Bordé d'Or* alimaleko liburuko belar meta erraldoian barneratu bertze erremediorik ez dut. Urteak baditu ene liburutegian dagoela, Claude Riehle frantsesez emana<sup>5</sup>. 133. orrialdean ageri da perpausa, kaxotxen artean: aipu bat da, Wilhelm Jensenena. *Gradiva*, Freudek ametsen gaineko ikerketa lanean aztertu zuen eleberraren autorea da Jensen. Oihartzun handia eduki zuen obra hark surrealista frantsesen artean, André Bretonengan bereziki.

Horra bada ustez «zulu» zatekeen atsotitza, Arno Schmidtek aipatua, egiaz Jensenek sortua eta, aldi berean, Freudek eta, ondoren, André Bretonek baliatua... mundua lurpeko logika baten arabera ari izanen balitz bezala, isilpeko idazketa baten, inguru poetiko baten, arabera ehundua balitz bezala. Nazioarteko bat, letrista nahi bada, eleez, haien oihartzun intimo eta unibertselez, axolatzen den magia arrazional bat... Haren hatza da literatura, non-nahikoa den ere.

---

<sup>5</sup> Arno Schmidt, *Soir Bordé d'Or*, Maurice Nadeauren argitalpena, Claude Riehle frantsera itzulia, 1991.